

Foru Aldundiak erdi-mailako kargudunentzako industria-kudeaketako prestakuntza bultzatzen du Aiara Industrial Lab programaren barruko

Aiara Industrial Lab lurraldeko enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako hainbat prestakuntza-ekintza eta jarduera bultzatzen ari da, Arabako industria-garapenaren funtsezko motor gisa sendotuz

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 2a. Arabako Foru Aldundiak, Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan, industria-kudeaketari buruzko ikastaro aurreratu bat jarri du abian, erdi-mailako arduradunentzat, gero eta zorrotzagoak diren ekoizpen-inguruneetan duten gaitasuna hobetzeko.

Prestakuntza hori Aiara Industrial Lab programaren barruan kokatzen da, Aiarako eskualdeko industria-sarea berrikuntzaren, digitalizazioaren eta profesionalen trebakuntzaren bidez indartzea helburu duen ekimen estrategikoa. Aiara Industrial Lab lurraldeko enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako hainbat prestakuntza-ekintza eta jarduera bultzatzen ari da, Arabako industria-garapenaren funtsezko motor gisa sendotuz.

2025eko martxoaren 10ean hasi zen ikastaroak industria-kudeaketaren ikuspegi integrala eskaintzen die jardunean dauden profesionali, eta funtsezko tresnak ematen dizkie prozesuak optimizatzeko, taldeak kudeatzeko eta beren enpresetako lehiakortasuna hobetzeko.

Ikastaroa El Refor - Amurrioko instalazioetan ematen da, aurrez aurreko saioen metodologia konbinatuarekin eta, kasu batzuetan, online prestakuntzarekin. 128 orduko iraupenarekin, prestakuntza zazpi modulu espezializatutan egituratzen da:

Fabrikazio Ingeniaritza (28 ordu)

Produkzioaren kudeaketa (24 ordu)

Fabrikazioaren kalitatea (20 ordu)

Pertsonen kudeaketa (20 ordu)

Ingurune gatazkatsuetako kudeaketa (12 ordu)

Kostuen eta inbertsioen analisia (8 ordu)

Proiektuen kudeaketa (16 ordu)

Ikastaroa astelehen goizetan egiten da, 4 orduko saioetan, parte-hartzaileen lan-jarduerarekiko bateragarritasuna bermatuz.

Babes instituzional giltzarria

Arabako Foru Aldundiak bere gain hartu zuen programaren kostuaren zati handi bat, eta enpresek behar zuten inbertsioa murriztu zuen. Horrela, parte-hartzaile bakoitzaren azken prezioa 550 €izan zen ikasturte osorako, eta banakako modulueta joatea, berriz, 40 €eta 140 €bitartekoa.

Prestakuntza abian eta hurrengo ekimenak

Ikastaro honetarako izen-emateak itxita daude, baina Arabako Foru Aldundiak, Aiara Industrial Lab-en bitartez, industriaren sektorerako prestakuntza- eta trebakuntza-aukera berriak garatzen jarraituko du. Laster digitalizaziora, berrikuntza teknologikora eta prestakuntza espezializatura bideratutako ekimen berriak iragarriko dira, guztiak tokiko industriaren lehiakortasuna eta iraunkortasuna bultzatzera bideratuak.

Hurrengo jardueri buruzko informazio gehiago nahi duten enpresa eta profesionalek info@mondragon.edu posta elektronikoaren bidez edo 943 71 21 85 telefonora deituz jar daitezke harremanetan.

Ekimen horren bidez, Arabako Foru Aldundiak berretsi egiten du lurraldeko industria-sarea garatzeko eta bertako profesionalen kualifikazioa hobetzeko konpromisoa, eta bermatzen du Arabako industria-sektoreak eboluzionatzen jarraituko duela eta merkatuaren erronka berrietara egokituko dela.